

EGUNEKO AHOLKUA

BIGARREN AHOLKUA: ENERGIA AURREZTEA. MURRIZTU ITZAZU *STAND BY*-AK

Gure etxeko **tresna elektriko** gehienak ***stand bye*** geratzen dira itzaltzen direnean, telebista asko argi gorri bat piztuta geratzen dira, gauza bera gertatzen da musika aparatuen edo DVDen kasuan. Hiriko kondairak dio argi horiek ia ez dutela kontsumitzen, baina ipuin hori sinetsi dugun arren, ez du oinarririk.

Stand by moduan uzten diren gailu elektrikoek asko eta asko kontsumitzen dute, gure faktura elektrikoaren **% 5 eta % 20** artekoa hain zuzen ere, ingurumenarentzat kaltegarriak izateaz gain, berotegi efektua eragiten duten gasen **% 1aren** erantzuleak direlako.

***Stand by* bidezko gastua murrizteko, honako aukera hauek daude:**

Erregleten erabilera: Pizteko eta itzaltzeko etengailua duten erregletak oso praktikoak dira, gure **aparatu elektrikoak** erregletara konektatuta izan ditzakegulako eta, alde egin behar dugunean, etengailua itzal dezakegulako. Gainera, argi bat dutenez, gela ilunpetan geratzen bada, ikus daiteke, eta itzaltzeaz oroituko gara, ***stand by*** kentzeko.

Egunez kargatzea: Bateriak kargatu behar dituzten mugikorrek eta bestelako gailuak egunez kargatu behar dira. Gauzez egiteak argiaren gehiegizko kontsumoa dakar, bateria osatu bada ere, mugikorrek, tabletak edo beste gailu batek energia **kontsumitzen** jarraituko duelako.

Transformadoreak: Elementu horiek ere energia kontsumitzen dute; beraz, erabiliko ez baditugu, onena entxufetik ateratzea da, beharrezkoa ez den energia-**gastua** saihesteko.

Zenbat kontsumitzen duten aparatu elektrikoek *stand byn*

Izan ere, kalkulagailu bikaina dugu etxean ditugun *aparatuek eta etxetresna elektrikoek stand byn zenbat kontsumitzen duten* jakiteko, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Erakundetik (KEE/OCU) kalkula daiteke **HEMEN**. Hau da, denak piztuta edukiz gero, ***Stand by* horren kontsumo mamuaren ondorioz**, batez besteko gastu hauek izango genituzke:

Consumo en stand by

Aparatos de audio, video, ocio

		Potencia en Stand-by	Consumo anual	Gasto anual	CO2 producido
<input checked="" type="checkbox"/>	TV CRT 32" ⓘ	6	53	8,94	34,2
<input checked="" type="checkbox"/>	TV LCD 37" ⓘ	2	18	2,98	11,4
<input checked="" type="checkbox"/>	TV plasma 42" ⓘ	3	26	4,47	17,1
<input checked="" type="checkbox"/>	DVD	4	35	5,96	22,8
<input checked="" type="checkbox"/>	Video	8	70	11,91	45,6
<input checked="" type="checkbox"/>	Decodificador satélite	7	61	10,42	39,9
<input checked="" type="checkbox"/>	Decodificador digital	5	44	7,45	28,5
<input checked="" type="checkbox"/>	Consola	4	35	5,96	22,8
<input checked="" type="checkbox"/>	Teléfono inalámbrico	4	35	5,96	22,8
<input checked="" type="checkbox"/>	Radiodespertador	7	61	10,42	39,9
<input checked="" type="checkbox"/>	Cadena de música	6	53	8,94	34,2

Aparatos de ofimática

		Potencia en Stand-by	Consumo anual	Gasto anual	CO2 producido
<input checked="" type="checkbox"/>	Ordenador ⓘ	5	44	7,45	28,5
<input checked="" type="checkbox"/>	Portátil ⓘ	4	35	5,96	22,8
<input checked="" type="checkbox"/>	Monitor CRT ⓘ	3	26	4,47	17,1
<input checked="" type="checkbox"/>	Monitor LCD ⓘ	1	9	1,49	5,7
<input checked="" type="checkbox"/>	Router	8	70	11,91	45,6
<input checked="" type="checkbox"/>	Impresora	8	70	11,91	45,6
<input checked="" type="checkbox"/>	Altavoces PC	3	26	4,47	17,1

Aparatos de cocina

		Potencia en Stand-by	Consumo anual	Gasto anual	CO2 producido
<input checked="" type="checkbox"/>	Microondas	4	35	5,96	22,8
<input checked="" type="checkbox"/>	Máquina del café	5	44	7,45	28,5

TOTALES	97 W	850 kWh	144 €	552 kg
----------------	-------------	----------------	--------------	---------------